DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN WEBGUNE NAGUSIRAKO ETA DONOSTIA KULTURA EKOSISTEMAKO GAINERAKO WEBGUNEETARAKO MANTENTZE ETA GARAPEN BERRIEN ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

0. AURREKARIAK

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA

2. PRESTAZIOEN IRISMENA

3. METODOLOGIA, JARRAIPENA ETA KONTROLA

4. ENTREGATZEKOAK

IFK-CIF Q2000541I

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN WEBGUNE NAGUSIRAKO ETA DONOSTIA KULTURA EKOSISTEMAKO GAINERAKO WEBGUNEETARAKO MANTENTZE ETA GARAPEN BERRIEN ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

0- AURREKARIAK

Donostia Kulturak Donostia garatu eta ezagutzera emateko aktibo nagusi moduan kokatu nahi du kultura. Horretarako, hainbat udal ekipamendu eta zerbitzu kudeatzen ditu, kultura diziplina guztietako programazioa egin eta zenbait jaialdi garrantzitsu antolatzearekin batera.

Ekipamenduen aldetik, bi antzoki eta beste hiru espazio eszeniko, 10 kultur etxe, 14 liburutegi eta museo bat kudeatzen ditu. Jaialdiei dagokienez, Jazzaldia, dFeria, Literaktum, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Giza Eskubideen Zinemaldia antolatzeaz arduratzen da. Gainera, Musikagela edo Larrotxene Bideoren moduko programak eta Donostia Kultura Irratia ere bere esku daude. Era berean, ez dugu ahaztu behar Donostia Kultura Festak dela hiriko jai garrantzitsuenak antolatzen dituen erakundea, hala nola danborrada, Aste Nagusia, Euskal Jaiak, etab. Sormen kulturala sustatzeko programak ere gauzatzen ditu oso arlo anitzetan, eta sortzaile zein sustatzaileei zuzendutako dirulaguntzak eta laguntzak banatzen ditu.

Donostiako biztanleen erdiak baino gehiagok DK txartela daukate, eskaintzen dituen zerbitzuei onura ateratzeko, esaterako, sarrerak erosteko deskontuak edo liburutegietako mailegua.

Donostia Kulturaren estrategia digitala bere webgune nagusian, www.donostiakultura.eus, eta ekosistemako gainerako webguneetan (11 webgune) oinarritzen da batik bat. Donostia Kulturaren webgune nagusia erabat berritu zen 2022ko ekainean, eta, ondoren, ekosistemako beste webgune batzuk ere berritu dira, besteak beste, victoriaeugenia.eus, literaktum.eus, dferia.eus eta jazzaldia.eus, "liburu dantza" liburutegien blogarekin batera (https://blogak.donostiakultura.eus/liburu-dantza/). Falta diren webguneak lizitazio honen arabera formalizatzen den kontratuaren bidez berrituz joango dira. Salbuespena San Telmo Museoaren webgunea izango da, duen tamaina eta konplexutasuna direla eta beste berritze prozesu bat jarraituko baitu. Hala ere, prozesu hori gauzatu arte, santelmomuseoa.eus webgunearen mantentzea lizitazio honen bidez egingo da.

Kontuan hartu behar da webgune hauek eginkizun desberdinak esleituta dituzten 50 erabiltzaile baino gehiagok elikatzen dituztela. Oso garrantzitsua da sistema hori behar bezala mantentzea eta erabiltzaileei kudeaketa zuzen baterako tresnak eskaintzea.

1- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratu honen objektua Donostia Kulturaren webgune nagusiaren (www.donostiakultura.eus) eta DK ekosistemako gainerako webguneen mantentze zerbitzu eta garapen berrien kontratazioa da.

Hauek dira gaur egun ekosistema osatzen duten webguneak:
www.victoriaeugenia.eus
www.jazzaldia.eus
www.dferia.eus
www.literaktum.eus
www.sansebastianhorrorfestival.eus
www.zinemaetagizaeskubideak.eus
https://astenagusia.donostiakultura.eus
https://danborrada.donostiakultura.eus
https://irratia.donostiakultura.eus

IFK-CIF Q2000541I

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

https://blogak.donostiakultura.eus/liburu-dantza
www.santelmomuseoa.eus

Kontratuaren objektua izango diren mantentze lanak (prebentiboak, zuzentzaileak eta ebolutiboak) eta garapen berriak honela garatuko dira:

- Mantentze zerbitzuak (prebentiboa, zuzentzailea eta ebolutiboa):
  - Mantentze prebentiboa: kontratistak kudeaketa proaktiboa egin beharko du, gorabeherei aurrea hartuz eta behar diren hobekuntzak aurreikusiz.
  - Mantentze zuzentzailea: adjudikaziodunak mantentze zuzentzaileko zerbitzu bat jarriko du Donostia Kulturaren eskura, gorabeherak konpontzeko eta integrazio zein pertsonalizazioetan zuzenketak egiteko.
  - Mantentze ebolutiboa eta funtzionalitate berriak: webgunean hobekuntza funtzional eta teknologikoak txertatuz joateko konpromisoa hartuko du adjudikaziodunak, eta aldaketa guztiak Donostia Kulturari jakinaraziko dizkio.

- Garapen berriak

  Donostia Kulturak garapen berriak ezartzea egokitzat jotzen duenean, proiektu xehatu bat eskatuko dio kontratistari, honako alderdi hauen zehaztapenarekin: garapenaren irismenaren azalpena, garapen berrietarako aurreikusitako orduak eta egikaritzeko aurreikusitako epea. Donostia Kulturak proiektua onartu beharko du zerbitzuei ekin aurretik.

IFK-CIF Q2000541I

2- PRESTAZIOEN IRISMENA

2.1. Mantentze zuzentzaile eta prebentiboko zerbitzua

Mantentze zuzentzaile eta prebentiboak barne izango ditu, gutxienez, webguneak arakatzaile eta gailuetan behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko behar diren eguneraketak, edo zerbitzuaren berrezarpena, erabilgarri ez badago.

Horrez gain, beste plataforma batzuetarako konexioak ere barne izango ditu. Zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den edozein sistemarekiko erabateko integrazioa ziurtatzea mantentzearen barne dago; beraz, Donostia Kulturaren webguneetara konektatuta eta/edo han integratuta dauden kudeaketa sistemen kanpoko hornitzaile arduradunekin koordinazioa antolatu beharko da.

Bestalde, landu beharreko beste alderdi batzuk ere barne izango ditu, hala nola segurtasuna, hosting-a eta SEO analisiak.

2.1.1 Egungo web ingurunearen azalpena

Hona hemen lizitazio honi lotutako mantentze zerbitzuaren barne dagoen ekosistemaren azalpena:

- Webgune nagusia www.donostiakultura.eus
  PHP bertsioa: 8.2.20
  Joomla 4.3.4

Webgune nagusi honek zenbait suhome eta landing page ditu barne, esaterako, www.donostiakultura.eus/sarrerak, diziplina bakoitzerako azalak (adib.: https://www.donostiakultura.eus/eu/musika), kultur etxeetako azalak (https://www.donostiakultura.eus/eu/aiete) edo programa zehatzak, hala nola www.donostiakultura.eus/eu/larrotxene-bideo.

- **www.victoriaeugenia.eus**
  PHP bertsioa: 8.2.20

Joomla: 4.3.2

- **www.jazzaldia.eus**
  PHP bertsioa: 8.2.20
  Joomla: 5.1.1

- **www.dferia.eus**
  PHP bertsioa: 8.2.20
  Joomla: 4.2.8

- **aurrekoak.dferia.eus**
  PHP bertsioa: 5.3.29
  Joomla: 1.5.26

- **www.literaktum.eus**
  PHP bertsioa: 8.2.20
  Joomla 5.0.3

- **aurrekoak.literaktum.eus**
  PHP bertsioa: 5.3.29
  Joomla: 1.5.26

- **astenagusia.donostiakultura.eus**
  PHP bertsioa: 8.0.30
  Joomla: 3.10.11

- **danborrada.donostiakultura.eus**
  PHP bertsioa: 8.0.30
  Joomla: 3.10.12

- **www.sansebastianhorrorfestival.eus**
  PHP bertsioa: 5.3.29
  Joomla: 1.5.26

- **www.zinemaetagizaeskubideak.eus**
  PHP bertsioa: 5.3.29
  Joomla: 1.5.26

- **irratia.donostiakultura.eus**
  PHP bertsioa: 8.0.30
  Joomla: 3.10.11

- **https://blogak.donostiakultura.eus/liburu-dantza**
  PHP bertsioa: 7.4.33
  WordPress: 6.1.1

- **www.santelmomuseoa.eus**
  PHP bertsioa: 5.3.29
  Joomla: 1.5.26

- **extranet.donostiakultura.eus**
  PHP bertsioa: 7.4.33
  CodeIgniter: 2.1.3

- **h.donostiakultura.eus**
  PHP bertsioa: 5.3.29
  Joomla: 1.5.23

IFK-CIF Q2000541I

2.1.2. Optimizazio teknikoa

Enpresa adjudikaziodunak mantentze zuzentzaileko zerbitzu bat eskainiko du, gorabeherak konpontzeko eta integrazio zein pertsonalizazioetan zuzenketak egiteko.

Mantentze zuzentzaileaz gain, adjudikazioduna mantentze prebentiboaz eta zerbitzua modu proaktiboan kudeatzeaz ere arduratuko da, gorabeherei aurrea hartuta eta beharrezkoak diren hobekuntzen plangintza eginda. Ondore horietarako, zerbitzu horrek barne izango dituen jarduketak azaldu beharko ditu enpresa lizitatzaileak, 2. gutun azaleko eskaintzan.

Atal honetan zehaztu dira mantentze prebentibo, zuzentzaile eta ebolutiboan kontuan hartu beharko diren web ekosistemako zenbait elementu. Halere, beste elementu batzuk ere egon litezke edo elementu berriak sortu litezke kontratuaren iraunaldian zehar.

- **Osagai gehigarriak**

donostiakultura.eus atari nagusiak, Joomlak berak eskaintzen duen sistema osoarekin batera, berebiziko garrantzia duten beste osagai batzuk ere baditu, hala nola Acymailing 8.7.1, buletinak eta prentsa oharrak bidaltzeko, edo RSForm! Pro 3.1.11, inprimakiak egin eta kudeatzeko. Osagai hauek erabat operatibo eta eguneratuta mantendu beharko dira, dagozkien lizentzia eta beharrezkoak diren gainerako elementuekin.

- **Estraneta**

Estranet bat egongo da informazio guztia formatu egokietan kontsultatu eta erauzi ahal izateko, bai agendako ekitaldien informazioa zein bazkideena ere. Agendaren kasuan, kontsultak iragazteko, gaur egun Donostia Kultura plataforman aktibo dauden iragazki guztiak erabili ahalko dira.

- **Erabilerraztasuna**

WAI (Web Accessibility Initiative) protokoloaren WCAG (Web Content Accessibility Guidelines) arauak bete beharko dira, A mailan gutxienez, eta AA mailako zati batean. Gidalerro horiek betetzen diren edo ez egiaztatzeko webguneen erabilerraztasun testa (TAW) erabiliko da.

- **Eguneraketak**

Adjudikaziodunak plataforma bakoitzaren softwarea eguneratzeko plana eta jarraipen xehatua egiteaz arduratuko da.

- **Cookieen kudeaketa**

Datu pertsonalak babesteko eta merkataritza elektronikoari buruzko araudia betetzen dela ziurtatze aldera, cookieak kudeatzeko tresnak izan beharko dituzte webguneek. Zerbitzu horren kudeaketa eta mantentzea, eta hari lotutako edozein kostu, mantentze zerbitzuaren barne ulertuko dira. Enpresa lizitatzaileak prozedura xehatu bat aurkeztu beharko du 2. gutun azaleko eskaintzan, erabiliko dituen tresna eta metodologiekin batera.

2.1.3. Beste plataforma batzuekiko konexioa

Kontratuaren adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den edozein sistemarekiko erabateko integrazioa bermatzea, eta, edozein arazo tekniko agertzekotan edo zerbitzua

IFK-CIF Q2000541I

hobetu behar izatekotan, adjudikazioduna arduratuko da zerbitzu horiekiko integrazioa mantentzeaz eta funtzionamendu zuzena ziurtatzeko behar diren konponbideak gauzatzeaz.

Horretarako, Donostia Kulturaren webguneetara konektatutako eta/edo bertan integratutako plataformen kanpoko hornitzaile arduradunekin koordinatu eta lankidetzan aritu beharko da kontratista.

Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da industriako azken teknologia eta joerak ezagutzea, eta eskaintzen dituen zerbitzuen integritatea eta segurtasuna bermatzeko neurri proaktiboak hartzea. Horrez gain, beste zerbitzu hornitzaile batzuekiko lankidetzako eta talde laneko jarrera bat espero da adjudikaziodunarengandik, alderdi guztietan integrazio perfektu bat ziurtatzeko.

Hona hemen proiektuan integratuta eta/edo harekin konektatuta dauden tresnak:

- **API**

Ekosistemako webguneetako zenbait eduki donostiakultura.eus webgune nagusitik ateratzen dira, ez dira gainerako webguneetatik kudeatzen. Horretarako, REST API bat erabiltzen da behar diren eduki guztiak eskuratzeko, datuak trukatzeko JSON formatua baliatuz.

Hauek dira Donostia Kulturaren APItik hartzen diren edukiak: Ekitaldiak, Erakusketak, Ikastaroak, Albiste/Abisuak, Prentsa Oharrak/Deialdiak, espazioen alokairua eta abonamenduak. Hala ere, etorkizunean gehiago izatea gerta liteke.

- **EKI**

Donostia Kulturaren bazkideak kudeatzeko aplikazio bat da, eta baita ikastaroak eta ikastaroetarako matrikulazioak kudeatzekoa ere.

- **Ticketing plataforma**

Era berean, webguneko CMSa (edukiak kudeatzeko sistema) Secutix izeneko ticketing plataformarekin konektatuta dago, sarreren salmenta gaitzeko.

- **Single Sing On plataforma**

IDP (IDentity Provider) identifikazio sistema bat dago SAML 2.01 protokoloan oinarritutako Single Sign On autentifikazio zerbitzuak hornitzeko. Sarreren erosketak eta ikastaroetako izen emateak kudeatzeko erabiltzen da.

- **Beste integrazio batzuk: liburutegiak, kontratatzailearen profila, Kulturklik, akreditatuen kudeaketa…**

Donostia Kulturak integratuta ditu ere, era batera edo bestera, liburutegi sarearen katalogoa, kontratatzailearen profila, akreditatuak kudeatzeko plataformak, etab.

Horrekin batera, datuak hirugarrenei –esaterako, Kulturklik– helarazteko sistemak gaituta ditu, RSS espezifiko bidez.

Halaber, une honetan webgunearekin konektatuta ez dauden beste kudeaketa plataforma batzuekiko integrazioa eskatu ahalko du Donostia Kulturak.

IFK-CIF Q2000541I

2.1.4 Segurtasuna

Webguneak prest egon beharko dira beti OWASP fundazioak aztertzen dituen web sistemetarako arrisku nagusiak antzeman, aztertu, "logeatu" eta horien aurrean babesteko. Ondorioz, erasoak ekiditeko beharrezkoak diren neurri guztiak ezarri beharko ditu kontratistak. Era berean, beste mota batzuetako neurrien babesa bermatu beharko du ere, besteak beste, login-en murrizketa, indar handiko erasoen aurreko babesa, gakoen indarraren berrikusketa, etab.

Enpresa lizitatzaileak 2. gutun azalean definituko du datu basearen eta hosting-aren independentzia eta segurtasuna ahalbidetzen duten gainerako fitxategi garrantzitsuen backup automatikoen politika.

2.1.5. Hosting-a eta bere azpiegitura

Gaur egun, Donostia Kulturak Elite zerbitzari dedikatu bat du - Prozesadorea eta RAMa: Intel Xeon-E 2388G - 8c/ 16 t - 3.2GHz / 4.6GHz, 64GB DDR4 ECC 3200Mhz-ekin. Diskoen konfigurazioa: 2x960 GB SSD NVMe Soft RAID. Kontrol panela: Plesk mugagabea. Sistema eragilea: AlmaLinux 8.

Eta beste hosting elastiko bat. CPU: % 200 RAM memoria: 2048 MB. Espazioa diskoan 75 GB.

Adjudikazioduna arduratuko da zerbitzarien egoera gainbegiratzeaz, eta lehentasuna eman beharko die alderdi hauei, besteak beste: etorkizuneko erakundearen estrategia digitalerako egokiak diren segurtasun, erantzun eta hazkunde gaitasunak.

Lizitazio honetatik eratorritako kontratuaren iraunaldian zehar zerbitzaria aldatu beharko balitz, adjudikaziodunak proposatuko du zerbitzari aldaketa, bai eta zerbitzari berriaren ezaugarriak, zerbitzaria ostatatuta egongo den tokia, etab.

Horrez gain, hautatuko den ostatatzearen kontratazioa kudeatu ahalko du adjudikaziodunak, Donostia Kulturaren kontura, baina Donostia Kulturak zuzenean ordainduko dio dagokion prezioa hautatutako hornitzaileari.

Adjudikaziodunak kudeatuko ditu ere Donostia Kultura ekosistemako webgune guztien segurtasun kopiak.

2.1.6. SEO eta Analitics

Mantentze lanen esparru barruan, SEO estrategia bat txertatuko da. SEO estrategiaren helburuak izango dira erabiltzaileen trafikoa areagotzea, gako hitzen posizionamendu organikoa hobetzea, markak Interneten duen presentzia areagotzea eta kalitateko trafikoa areagotzea.

Zerbitzu horrek honako lan hauek izango dituzte barne gutxienez:

- Webguneetako edukien indexazioa bilatzaile nagusietan.
- Egungo keyword-en analisi eta jarraipena, akatsen berrikusketa eta posizionamendu faktoreen auditoretza.
- SEO optimizazioa eduki berrietarako, egungo edukietarako eta nabigazio egituretarako; betiere hauen bidez identifikatzen diren termino esanguratsuenetan posizionamendu egokia ziurtatzeko: tituluak, URLak, meta goiburuak (H1, H2,…), estekak, UX mugikorretarako, etab.
- SEO optimizazioa ingurune mugikorretarako.

IFK-CIF Q2000541I

- Webguneen karga abiadura optimizatzea, horretarako webguneetako elementuak (kodea, irudiak, cas, scripts) optimizatuta eta cache efizienteak gaituta.
- Atazak egikaritzeko plana, betiere lehentasuna emanda posizionamenduan inpaktu handietan duten ekintzei. Ondoren, ataza horiek ebaluatu eta egikaritu egingo dira.

Horrekin batera, jarraipen txostenak egin beharko dira. Hilean behingoak webgune nagusiaren kasuan, eta urtean behingoak, gutxienez, gainerako webguneen kasuan.

Analitikak GA4 bidez egingo dira, eta baita Matomo bidez edo erabiltzaileen datu eta pribatutasuna babesten dituen beste sistema baten bidez ere.

2.2. Mantentze ebolutiboko zerbitzua

Kontratuaren iraunaldian zehar, kontratistaren esku egongo dira mantentze ebolutiboarekin lotutako zenbait lan. Halaber, Donostia Kultura ekosistemari funtzionalitate berriak gehitu beharko dizkio pixkanaka. Izaera mugatzailerik gabe eta adibide moduan soilik, mantentze ebolutiboak lan hauek barne izango ditu, besteak beste:

- Edukien kudeatzailearen bidez egin ezin diren eta diseinuaren zein teknikaren aldetik esku hartzea eskatzen duten aldaketa nabarmenak, webguneko orri eta ataletan.
- Landing page orrien garapena, antzematen diren beharren arabera edo lineako marketin kanpaina jakinen arabera.
- Informazioaren arkitektura hobetzeko proposamenak, eta eduki berriak sortu eta txertatzeko proposamenak ere.
- Diseinuaren eta erabiltzaile esperientziaren hobekuntzak, ezarritako helburuen arabera.
- Edukien kudeatzailerako funtzionalitate berriak edo aldaketa zuzentzaileak.
- Webguneetan txertatzeko funtzionalitate berriak. Funtzionalitate horiek webgunea erabiltzaileentzat pertsonalizatzea izango dute helburu, besteak beste.
- Gainera, aintzat hartuko dira (2. gutun azalaren esparruan) app edo osagai bidez erabilerraztasuna hobetzeko proposamenak, webgunea erabiltzailearen dibertsitate funtzionalera egokitu ahal izateko.

Mantentze ebolutibo horren barne, oso kontuan hartu beharko dira ere optimizazioa eta web analitikak. Metrikak egingo dira, alde batetik, garapen ebolutiboak bilatzaileetarako optimizatuta daudela ziurtatzeko eta, bestetik, adostu eta ezarri diren SEO gidalerroekin bat datozela egiaztatzeko. Web metrikak egiteko tresnetan ere aztertuko dira garapen ebolutiboak. Horretarako, GA4, Google Data Studio eta Matomo baliatuko dira.

2.3. Garapen berriak

Donostia Kultura ekosistema barruan, zenbait webgunek erabateko berrikuntza bat behar dute, eta, beharren arabera, garapen berriak ere behar izatea gerta liteke. Ondore horietarako, Donostia Kulturak garapen berriak ezartzea egokitzat jotzen duenean, proiektu xehatu bat eskatuko dio kontratistari, honako alderdi hauen zehaztapenarekin: garapenaren irismenaren eta faseen azalpena, horren barne direla garapen berrietarako aurreikusitako orduak eta egikaritzeko aurreikusitako epea. Donostia Kulturak proiektua onartu beharko du zerbitzuei ekin aurretik. Urtean proiektu berri bat egin beharko dela kalkulatu da.

Garapen berri guztiak adjudikaziodunak aurkeztutako proiektuaren arabera kudeatuko dira. Proiektu horretan, fase hauek identifikatuko dira gutxienez:

IFK-CIF Q2000541I

· Analisia, proben plana eta irtenbidearen diseinua.
· Eraikuntza eta garapen probak.
· Preprodukzio faseko hedapena eta probak.
· Produkzio faseko hedapena.

Aurreikuspenen arabera, garapen berrietarako lehenengo proiektua Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaldiaren webgunea berritzea izango da. Gauzak horrela, enpresa lizitatzaileak Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaldiaren webgunea berritzeko proiektu proposamen bat sartuko du 2. gutun azaleko eskaintzan. Elementu hauek aurkeztuko dira: web mapa, diseinuaren bozetoa eta funtzionalitateen zerrenda.

3- METODOLOGIA, JARRAIPENA ETA KONTROLA

Mantentze zuzentzaile eta prebentiboari dagokionez, adjudikaziodunak eta Donostia Kulturak hilero aztertuko dituzte egin beharreko lanak, eta adjudikaziodunak txosten bat egingo du hilero egikaritutako lanekin eta inbertitutako orduekin.

Funtzionalitate berriei dagokienez, Donostia Kulturak, kasuko funtzionalitatearen konplexutasunaren arabera, proiektu bat eskatu ahalko dio adjudikaziodunari, Donostia Kulturak definitutako baldintzen araberakoa. Hor zehaztuko dira gauzatuko den irtenbidea, erabiliko den metodologia, garatuko diren lanen denbora plangintza (proiektuaren fase eta mugarriekin), eskainiko zaizkion orduak eta, oro har, garrantzitsutzat jotzen diren lanak egiteko moduari buruzko alderdi osagarri guztiak. Proiektuan entrega epea ere zehaztuko da, eskaria jasotzen den momentutik zenbatzen hasita. Epe horretan zehar, amaitzen dituen lanen emaitzak entregatuz joango da adjudikazioduna.

Garapen berriei dagokienez, adjudikaziodunak proiektu bat aurkeztuko du, Donostia Kulturak definitutako baldintzen araberakoa. Hor zehaztuko dira gauzatuko den irtenbidea, erabiliko den metodologia, garatuko diren lanen denbora plangintza (proiektuaren fase eta mugarriekin), eskainiko zaizkion orduak eta, oro har, garrantzitsutzat jotzen diren lanak egiteko moduari buruzko alderdi osagarri guztiak. Proiektuan entrega epea ere zehaztuko da, eskaria jasotzen den momentutik zenbatzen hasita. Epe horretan zehar, amaitzen dituen lanen emaitzak entregatuz joango da adjudikazioduna.

3.1. Zerbitzua emateko tokia

Webgunerako kontratuaren objektuak barne dituen lanak adjudikaziodunaren bulegoetan garatuko dira (aurrez aurre edo urrutitik), eta kontratua egikaritzeko atxikitako langileak erabat koordinatuta arituko dira lanean.

3.2. Ordutegiak

Lanaldia enpresa adjudikaziodunak ezarriko du, baina etengabeko laguntza eskaini beharko du, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:00etara.

Momentu jakinetan, esaterako, Donostia Kulturaren ikastaroen matrikulazioak zabaltzen direnean, jaialdi baten hasieran, etab. Donostia Kulturak laguntza ordutegi hori zabaltzea eskatu ahalko du, gerta litezkeen gorabeherak konpontzeko.

3.3. Gorabehera motak eta erantzun denborak.

Zerbitzuarekin lotuta ager litezkeen gorabeheren graduazio bat ezarri da, zuzenean adjudikaziodunak kudeatzen dituen kasuetarako. Gorabehera horiek klausula honetan adierazitako gehieneko epe barruan konpondu beharko dira:

a) **Gorabehera kritikoak:** Gorabehera kritikotzat joko dira webgune baten edo ezinbesteko funtzionalitate baten erabilezintasuna eragiten dutenak,

IFK-CIF Q2000541I

esaterako, zerbitzariaren erorialdiak, webguneari egindako eraso informatikoak, etab.

Gorabehera hauek 5 orduren buruan izapidetu eta konpondu beharko dira.

b) **Gorabehera larriak:** funtzionalitate edo zerbitzuak eteten dituztenak izango dira, hala nola sarreren salmenta, webguneetako atal baten bistaratze okerra, ulermenik eza CRMekin, datu base edo web service-ekin, APIekin, etab.

Gorabehera hauek 48 orduren buruan izapidetu eta konpondu beharko dira.

c) **Gorabehera arinak:** webgunean egin beharreko zuzenketa txikiak dira, edo sekzio edo funtzionalitate bateko maketazio edo bistaratze erroreak, irudienak, etab.
Horrelako gorabeherak 5 laneguneko epe barruan zuzendu beharko dira.

Enpresa lizitatzaileak gorabeherak kudeatzeko protokolo bat aurkeztuko du, 2. gutun azaleko eskaintzan, eta baita erakunde kontratatzailearen eta adjudikaziodunaren arteko informazioa koordinatzeko proposamen bat ere.

3.4. Arau hausteak

Adjudikaziodunari egozteko moduko arau haustetzat joko dira Agiri honetako preskripzio teknikoetan adierazitako betebehar eta baldintzak ez betetzearekin lotutakoak. Hona hemen zenbait adibide, besteak beste:

IFK-CIF Q2000541I

3.4.1. Arau hauste oso larriak

- Zerbitzuen abiaraztea 15 egunetik gora atzeratzea, aurreikusitako datarekiko.
- Gorabehera kritiko bat jakinarazi ondoren, berehala eta beharrezkoak diren baliabide guztiekin ez jardutea.
- Zerbitzuak nabarmenki gaizki eta oker ematea. Hiru arau hauste larri metatzean egiaztatuko da hori.
- Donostia Kulturako teknikarien aginduak ez betetzea, aldez aurretik idatziz jakinarazi badira.
- Zerbitzua emateko segurtasun elementu edo neurririk ez izatea.
- Ekitaldi jendetsuetan, web ingurunea erorita egotea, besteak beste, Aste Nagusian, Jazzaldian, etab.
- Sarrerak saltzea edo ikastaroetan matrikulatzea galarazten duten web ingurunearen erorialdiak.

3.4.2 Arau hauste larriak

- Enpresa adjudikazioduneko langileek Donostia Kulturako edo hirugarren erakundeetako langileekin edo pertsonekin izandako gorabeherak, tratu okerraren ondoriozkoak zein zerbitzuak behar ez bezala ematearen ondoriozkoak. Horrelako hiru gorabehera arau hauste oso larritzat hartuko dira.
- Zerbitzua aldatzea, aurretiazko jakinarazpenik eta justifikatutako arrazoirik gabe. Horrelako hiru gorabehera arau hauste oso larritzat hartuko dira.
- Adjudikaziodunaren betebeharrak modu errepikatuan ez betetzea. Ez betetzeak modu errepikatuan gertatu direla ulertuko da agirietako betebeharrak hiru aldiz gutxienez bete ez badira, Donostia Kulturak aurretiaz eskatuta.
- Berandutze jarraitua adjudikaziodunaren betebeharretan. Berandutze jarraitutzat joko da hiru aldiz gutxienez gertatu bada, Donostia kulturak aurretiaz eskatuta.

- Bost arau hauste arin egiten badira, arau hauste larritzat hartuko dira.

3.4.3 Arau hauste arinak

Gorago aurreikusi ez diren gainerako kasuak izango dira, Agiri honetako baldintzak nolabait urratzen badituzte eta zerbitzuak modu ez larrian kaltetzen ez badituzte edo giza baliabideen zein baliabide materialen aldetik gabeziak eragiten badituzte.

Kontratuaren arduraduna izango da edozein hutsegite aurreko atalen arabera sailkatzeko ahalmen esklusiboa izango duen bakarra. Hutsegite horiek beti jakinaraziko zaizkio, idatziz, adjudikaziodunak izendatutako ordezkariari, goiburuan egindako hutsegite mota argi utzita. Ondore horretarako, behar adina datu, argazki eta agiri eskainiko dira.

3.5. Proiektuaren koordinazio eta jarraipenerako bilerak

Hilean behin bilduko dira, aurrez aurre Donostia Kulturaren egoitza zentralean, proiektuburua eta Donostia Kulturak izendatutako arduradunak. Bilera horietan, proiektuaren bilakaera aztertuko dute eta egokiak diren txostenak entregatuko dira, besteak beste. Hor planteatuko dira ere hurrengo hilabeterako lan ildo nagusiak, adjudikaziodunak bere baliabideak modu eraginkorrean antolatzeko aukera izan dezan.

Premiazko bilerak kontratuaren iraunaldian zehar: aurreikusi gabeko eta ezohiko egoerak (jaialdiak, jaiak…) kudeatzeko, Donostia Kulturak premiazko bilerak deitzeko aukera izango du.

Aurrekoa kaltetu gabe eta kontratuaren indarraldian zehar, bi erakundeetako (Donostia Kultura eta adjudikazioduna) koordinatzaileek egokitzat jotzen dituzten bilerak egitea erabaki ahalko dute.

Proiektuaren koordinazio eta jarraipenerako bileren orduen prezioa eskainitako prezio unitarioaren barne egongo da, eta ezingo da modu independentean fakturatu.

3.6. Prestakuntza

Enpresa adjudikaziodunak prestakuntza eskaini beharko die atariaren erabiltzaileei, atariaren erabilerarekin lotutako edozein alorretan. Horretarako, lizitatzaileak prestakuntza plan espezifiko bat azalduko du, 2. gutun azaleko eskaintzan, kontratuaren iraunaldian zehar beharko diren prestakuntza saioak adierazita (aurrez aurrekoak zein Internet bidezkoak).

Adjudikatutako zerbitzura atxikitako gutxieneko taldeko teknikariek emango dute prestakuntza.

3.7. Ezagutzen eta zerbitzuaren transferentzia

Kontratuaren iraunaldian zehar, eskatzen dizkioten informazio eta agiri guztiak emango dizkie adjudikaziodunak izendatutako pertsonei, kontratua egikaritzeko behar diren garapenen, lanen, tekniken, metodoen eta tresnen ezaguera sakona izan dezaten.

Halaber, adjudikaziodunak zerbitzuak behar bezala amaitzeko konpromisoa hartzen du, kontratua amaitu ondoren webguneen funtzionamendu zuzena galarazi edo oztopatzen duen edozein ekintza saihestuta.

Testuinguru horretan, adjudikaziodunak, hala eskatzen bazaio, edozein momentutan, kontratazio honen objektua diren zerbitzuak eman bitartean eta, nolanahi ere, zerbitzuok amaitzean, kontratatutako lanak egikaritzean edozein euskarritan sortutako dokumentazio eta material guztiak entregatu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari eta/edo hark ondore horretarako izendatutako pertsonei, eta baita lan horiek egikaritzearen ondorioz

IFK-CIF Q2000541I

sortutako iturburu kode irekia ere.

4- <u>ENTREGATZEKOAK</u>

Donostia Kulturak izendatutako arduradunek edukiak berrikusi eta proiektua behar bezala jarraitzeko moduan entregatuko da dokumentazioa. Dokumentazioa euskarri elektroniko editagarrian emango da.

Garatuko den lan handi bakoitzerako, elementu hauek entregatuko dira gutxienez, Donostia Kulturak berariaz bestelakorik adierazten badu salbu:

- Plan xehatua.
- Analisi funtzionala.
- Diseinu tekniko eta funtzionalen inguruko dokumentuak.
- Bozeto eta prototipoak.
- Jarraipen txostenak: txosten hauen helburua proiektuaren egoera fidelki islatzea izango da.

Donostian, sinadura elektronikoan adierazitako datan.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik:
JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2024.12.26 10:49:14 +01'00'

Jaime Otamendi Muñagorri jauna
Kontratazio Organoa

IFK-CIF Q2000541I